

@@@AGINDUA, 2011ko uztailaren 29koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Markina-Xemeingo (Bizkaia) «Lea-Artibai» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko dena.@@@

Markina-Xemeingo (Bizkaia) «Lea-Artibai» ikastetxe pribatuaren erakunde titularraren ordezkariak abiarazi duen espedienteaz aztertu da, non eskatzen baita ikastetxeari baimena alda dakiola, Batxilergoko unitate-kopurua gutxitzeko, Lanbide Heziketako lau ziklo kentzeko eta Lanbide Heziketako bi ziklo berri emateko.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimena ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (1992ko apirilaren 9ko BOE); 132/2010 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeentzako gutxieneko baldintzak ezartzen dituen (2010eko martxoaren 12ko BOE); 1538/2006 Errege Dekretua, abenduaren 15ekoa, hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (2007ko urtarrilaren 3ko BOE); 777/1998 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, hezkuntza-sistemaren barruan Lanbide Heziketaren antolaketako alderdi jakin batzuk garatzen dituen (1998ko maiatzaren 8ko BOE); eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- 2011-2012 ikasturtetik aurrera, jarraian zehazten den ikastetxe pribatuaren baimena aldatzen da:

Kode-zenbakia: 48006051.

Izen generikoa: Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

Izen espezifiko: «Lea-Artibai».

Titularra: Escuela Profesional Comarca Lea-Artibai Sociedad Cooperativa.

Helbidea: Xemein etorbidea 19.

Udalerrria: Markina-Xemein.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimena:

- Energia Eraginkortasuna eta Eguzki Energia goi-mailako heziketa-zikloa ematea.
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua goi-mailako heziketa-zikloa.
- Batxilergoko 8 unitate kentzea.
- Galdaketa eta Pulbimetalurgiaren bidezko Produkzioa goi-mailako heziketa-zikloa kentzea.

- Turismo Merkaturatzea eta Informazioa goi-mailako heziketa-zikloa kentzea.
- Bidaia Agentziak goi-mailako heziketa-zikloa kentzea.
- Plastikoak eta Kautxua goi-mailako heziketa-zikloa kentzea.

Ikastetxearen osaera:

- Batxilergoa.

Modalitateak: «Zientziak eta Teknologia» eta «Giza eta Gizarte Zientziak». Edukiera: 6 unitate.

- Lanbide Heziketa.

- Familia: Mantentze Lanak eta Ekoizpen Zerbitzuak.
 - Makineria eta Linea Eroanbideen Instalazioa eta Mantentze Elektromekanikoa erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
 - Hozteko, Girotzeko eta Beroa Sortzeko Instalazioen Muntaia eta Mantentze Lanak erdi -mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

- Familia: Fabrikazio Mekanikoa:
 - Fabrikazio Mekanikoko Diseinua goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
 - Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programatzea goi-mailako heziketa-zikloa . Edukiera: ziklo 1.

- Familia: Elikagaien Industriak.
 - Elikagaien Industria goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

- Familia: Administrazioa.
 - Administrazioa eta Finantzak goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

- Familia: Informatika.
 - Informatika Aplikazioen Garapena goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

- Familia: Elektrizitatea eta Elektronika.
 - Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.
 - Telekomunikazio eta Informatika Sistemak goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

- Familia: Energia eta Ura.

o Energia Eraginkortasuna eta Eguzki Energia Termikoa goi-mailako heziketa-zikloa.
Edukiera: ziklo 1.

2. artikulua.- Indarrean dauden arauak betetzera behartuta dago ikastetxea, honako hauei guztiei dagokienez: ikaspostu-kopurua, eskola-unitate bakoitzean irakasleak gehienez izango duen ikasle-kopurua, eta agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazio akademikoa eta hizkuntza-eskakizuna. Bestela, baliogabetu egingo da emandako baimena.

3. artikulua.- Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikingintzaren Kode Teknikoa bete beharko du ikastetxeak, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen bitartez laguntzarik lortuko denik.

Bigarrena.- Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 29a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.